



LAN TALDEAREN BILERA	
DATA: 2024.03.04	BILERA ZENBAKIA: 3
ORDUA ETA LEKUA: 17:30tan Itsasondoko Udalean	
PARTEHARTZAILEAK: Bihotza (gizarte langilea), Elena (Udal zinegotzia), Amparo, Mainer, Jone Iturrioz, Esti eta Erkuden.	

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA
KULTURARTEKOTASUNA
HERRI BIZITZA Herri Bizitzatik guk bultzatu eta egiten ditugun ekintzen laburpena eskatu digute. Erkudenen plantilla bat sartuko du, hemendi aurrera hori bete eta Herri Bizitzara bidaltzeko (plantilla atxikita amaieran).
ELKARTEEN ETXEA Bizi Nahi elkarte herriko elkarteen etxea bilakatzea proposatu nahi da. Horretarako lehen urratsa zinegotzi mahaian planteatzea izango da. Konsense gara honek lanketa handia ekarriko duela, jubilatuen espazioa izatetik, erabilera jende gehiagorengara pasatzean, araudi zorrotza eskatzen bait du.
ETXEBIZITZA ALOKAIURUA Herriko familiarentzat alokairua lortu dugu. Auzo-lana antolatuko dugu etxea atondu, transladoan lagundu eta beharrezko "gauzak" erosi/lortzeko.
ZAINTZA <i>Estiren aurkepena Eranskina 2 bezela zintzilikatuta.</i> Estik eman duen aurkezpenaren ondoren, Mainerrek ideia bat partekatu du: HERRIKO JUBILATUEK TUTORE BAT IZAN DEZATEN BOLONDRES TALDE BAT ANTOLATU . Funtsezkoa da adineko hauen premia indibidualak ezagutzea eta modu "pertsonalizatuan" lantzea. Adineko helduen, haien familien eta osasun-profesionalen arteko lankidetzak funtsezkoa izan daiteke zahartze osasungarria eta egokia bermatzeko uste dugu. Behar ezberdinak izango dituzte, eta beharren arabera bolondres taldetik TUTOREAK



izandatuko dira (nahi duenak eta pres dagoena). Martxoan Amparo, Bihotza eta Jone Iturrioz jubilatuekin biltzekoak dira, eta ordurako “beharren zerrenda” bat osatzea adostu dugu whatsappez. Horrela bilera egunerako badute zer proposatu.

Heldu nagusiek (80 urtetik gorakoek) izan ditzaketen beharren zerrenda osatzen hasi gara:

- **Erosketekin laguntza** (*ogia, kafea, erosketa orokorrak, familiakoentzako opariak, etab*)
- **Gidaria** (*elizara joateko, medikuarengana, etab.*)
- **Laguntza digitala** (*telefonoa erosi, instalatu, mezu elektronikoa, administrazio elektronikoa, etab.*)
- **Arlo emozional eta soziala**, 2 astez behin/hilabete kafe bat hartu, paseatu, egunkaria irakurri, telefonoz tarteka hitz egin, etab.
- **Entretanimendua eta aisialdira** (*bilngoa, memoria tailerra...*) animatu, lagundu

ERROLDAK

Otsailean zehar ez da errolda berririk egon.

ETXEKO- LANAK / ARDURAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Jubilatuak izan ditzaketen beharrak zerrendatu	Martxoan zehar	Denok
Elkarteen etxea proposatu zinegotzi mahaiari	Apirila	Elena
Martxoko erroldak	Apirila	Bihotza

HURRENGO BILERA

ONGIZATE (apirilak 8 - 17:30 udaletxean)

- Jubilatua.